


## 2661. Mapa: tomar rumbo / mettre le cap / set course (to)

GALDERA: 81390



	runbua artu
	errenbue artun
	giñara artu
	enfilau
	bire
	kapaver

- Itsasontziak aurretik ezarritako ibilbidea hasteari nola esaten zaion galdetu da.  
 - Aditza izan arren galdera honetan bilatzen zena, herri batzuetan izena jaso da. Erantzuntzat hartu da eta ahal izan den kasuetan aditzaren barnean lematizatu da.

**Elantxobe:** “Enfilau” esaten da kostie enfilaten dauenien. “Kanpotik etorri te Kabo Matxitxako enfilau deu”.

**Getaria:** “Ze rúnbotan úa?”, “léstian barrúna natxiák”, “nórtian barrúna natxiák”.

**Orrio:** Baporen ago ta “i, nóa ijuaztí?”. “Ipárreaka zióztik”... baño erritikan baporía ateratze anen: “Itxásoa ijua” esáte a... o “itxásoa zióztik”. Runbua: “Norteaka o esteaka”.

**Pasaia:** Runbua da zuzen... zuzenian juateko da, oan 'cambiar el rumbo' ya da... giñara. Zuzen tzuaz ta, orrea artu balin badu: “Ara! Arrek giñara artu ik”... “Giñara eman tziok estiborrea o aborrea o...” [pixka bat aldatzea baino ez].